

# KA TOPAKETA #8 – BUKOWSKY (14.06.2015)

## PARTAIDE BERRIAK

✚ MATTIN: Clown/ Inprobisatutako monologoak superheroietan oinarrituta.  
Osteguna 20:00 Bar El Callejón

✚ DARDARA KOLEKTIBOA (Zumaia)  
Ekimen kulturalak, batez ere musikalak.

Zumaiako Udalaren ondoan entsegu lokala, ekimenen autogestioaren truke.

5 bilera urtero, 60 partaide, horietatik 10 aktibo eta 4 urte funtzionamenduan.

✚ Voltaia: Stoner/Punk musika taldea musikazuzenean.com-en integratua.

## AIPATUTAKO GAIAK

✚ Diputaziotik jasotako diru-laguntza aipatzen da (Partehartzea), eta hurrengo bileran hitz egin beharko dela, hau nola kudeatu. Diru kontuak beti dira zailak eta ikusi egin beharko da zein baldintzetan eta zen parametroetan jaso den, zer estaltzen duen zehazteko.

✚ **DEMAGUN**, 19:00tan iritsiko da jaialdi antimilitarista azaltzeko.

✚ Gai zehatzei buruz erabakiak hartzeko talde berriak proposatzen dira. Iñakik “filosofiak” alde batera utzi eta gauzak zehazteko beharra nabarmentzen du. Ikusarazpen taldea, Ikus Entzuneko talde eta Koordinazio taldea eta egungo tresnen kudeaketa hobe bat planteatzen da.

✚ Garrantzitsua da KA-ren eta taldeen egiturak hobetzea. Ezin dira efektiboak izan eta pertsona batez bakarrik osatuak badaude.

- ✚ Facebook “internoan” KA-ko partaideen ekintza/ekimenen “spam”-en aurrean, kanpoko komunikazioetarako eta ekimenen ikusarazpenerako perfil irekia erabiltzea planteatzen da, iragarki guztiak horra bideratuz. Beharrezkoa da aurrez filtro lanak egitea eta horrek esan nahi du, hau administratuko duen pertsona bat egon behar duela.
- ✚ Hasieratik ikusi ez duen arren, gai honetan Makokik esperientzia du eta talde ezberdinen arteko informazioa eta beraien arteko koordinazioa nola kudeatu den azaltzeko planning bat eskainiko digu.
- ✚ Partaide euskaldunak bilatzeko arazoa planteatzen da, agian “erdaldun” bezala ikusten gaituztelako. Aho batez onartu zen Topaketetan gaztelera erabiliko zela gutxienez partaideren bat euskaraz moldatzen ez bada. Aldiz, kanpoko komunikazioa, aurkezpenak... bi hizkuntzetan egingo dira.

Posible da KA-n interesa izatea baina arrazoi honengatik pausoa ematera ez ausartzea. Pertsona hauek Euskara talde bat sor dezakete eta beste hizkuntzetara zabaltzea planteatzen da behin KA-k egitura sendoa duenean.

- ✚ Sendotasun hau lortzeko Koordinazioa funtsezkoa da. Komunikazio taldeak, ekimenen ikusarazpena eta ikus entzuneko taldea (gaur egun, partaide bakar batekin) barneratu beharko lituzke.
- ✚ **Ikus entzuneko** taldea sortzen da, lan zehatzekin. KA-ri buruz egiten hasi zen teaser-a egitea, eta etorkizun hurbilerako beste teaser batzuk ere egitea (KA Zuzenean...), argazki eta bideoen koordinazioa ere eginez. Makoki, Hodei, Aitor Osuna eta Ander Morea (jada barruan zegoena) sartzen dira taldera. Materiala eman nahi duenak dropbox edo wetransfer bide egin behar du eta bere irudiak barneratzen dituen karpeta bat sortu, izena, data eta ekimenaren izenburuarekin.
- ✚ Facebookari dagokionez, “internoa” barruko lana koordinatzeko eta barneko komunikazioetarako bakarrik erabiltzea erabakitzen da. Honela, perfil irekia kanpoko komunikazioetarako eta partaideen

promoziorako erabiliko da. Honek kudeaketa bat eskatzen duenez Karmenek bere burua eskaintzen du administratzaile izateko. Honela, Karmen Komunikazio taldean sartzen da.

✚ Jende gehiagorengana nola iritsi eta hauek aktiboki nola parte hartu dezaketen planteatzen da. Sedukzio bisuala, “gancho” moduko ekimenak eta feedback efektibo bat bakoitzak eskaini dezakeenaren artean eta KA-k eskaintzen duenaren artean.

✚ Hurrengo KA Zuzenean-i buruz, itxarotea edo jada sortua dagoen zerbaitetan parte hartzea planteatzen da. Honela, Dardarak-ek Abuztuaren 29an Zumaiako festetan partehartzea proposatzen du kartel musikala (jada ia itxita dago) beste ekimen batzuekin osatuz (magoak, pintura, antzerkua, performance-ak...) Ordutegia herri bazkaria eta Joseba Irazokiren kontzertuaren (17:30) artean izango litzateke.

✚ Makokik, KA, Piraten “Kofradia” batean sartu daitekeela planteatzen du hurrengo urteari begira. Talde propio batek Piraten egiturarekin harreman zuzena izango luke.

✚ Proposamenak positiboki hartzen dira baina kontuan hartzen da udarako ekintzak direla eta KA-ren impaktua handiagoa izango dela ukatu gabe, ez badira udarakoak ez diren ekimenak antolatzen, arriskutsua izan daitekeela programazio handi batean sartzea eta gainontzeko 9 hilabeteetan ezer egin gabe egotea.

✚ **Demagun**-ek zer den, zertan datzan , nola planteatzen ari den eta KA-n nola parte hartu dezakeen azaltzen du, Jaialdi Antimilitaristarekin. Jaialdi hau DSS2016 barnean dago aurrekontu eta lizitazio fasean dagoelako. KA-ren izenean proiektua aurkezteko egunak Ekainaren 22tik 28ra dira, Ekainaren 8a baino lehenago bidaltzen baita.

Jaialdiaren zati nagusia musika da, izan ere, lehiaketaren oinarrietan bozgorailu izatea zegoen, hortaz, musikaz betetako 3 egun izango dira, eszenatoki handiekin, eta formatu klasikoan, kartelburua eta teloneroa hiru eszenatokitan: Gros, Antiguoa eta Alde Zaharra.

Demagun-ek bere ideiak erakusten ditu, belizismoa lobbie armamentistiko bezala planteatuz, belizismora eramaten duten kulturako gaiak aipatuz, patriarkatua besteak beste, eta giza eskubideen eta eskubide zibilen urraketak salatuz. Hau open space-etan eztabaidatzen da eta hauetatik manifestu bat ateratzen da. Oraindik ez dago zehaztuta hauek kontzertuen aste berean edo aste bat lehenago izango diren.

Demagunek, KA-ri jaialdiak irauten duen bitartean, ekimenak programatzeko aukera eskaintzen dio, zehazki ekimen hauen antolakuntza eta koordinazioa, musikari eta artista lokalekin kontatuz. Bai kartel musikalak osatuz eta baita beste kartel batzuk sortuz ere beste leku eta data batzuetan, izan ere, jaialdia kontzertuen 3 egun horiek baino zerbait zabalagoa da.

DSS2016-rekin izan den lanerako metodoa, honakoa izan da: Eragilea -> Aurreproiektua -> Litzazioa.

Inplikazioa beharrezkoa izango litzateke lan taldeen aldetik eta bi pertsona egon beharko lirateke denbora partzialean lanean. Demaguneko Xabi jada KA-ren barnean dago baina bere kontaktuko datuak uzten ditu: xavi17480@gmail.com.

- ✚ Talde antimilitaristan integratzen dira, Hodei, Karmen, David, Jon eta Imanol (Dardarak, Mattin eta Gorka "boxes"-en gelditzen da (denboraren arabera) eta Igor (beharrezkoa bada). Iñaki ez litzateke prestaketan integratutuko baina bai partehartzean.
- ✚ Koordinazio taldera (Iñaki, Hodei, Antxon...gain) Dardarako Jon eta Imanol batzen dira. Koordinazio hau barnekoa (taldeen artekoa) eta kanpokoa izatea planteatzen da KA-ren sareak eta irismena zabaltzeko.
- ✚ Azkenik, Igorrek Komunikazio taldea utziko du Olatu talka/Resakaren mezuak eragin handirik izan ez duela ulertuta. Hala ere behar denerako bere prestutasuna adierazi du. Ez zuen denborarik eman jaialdien prozesua azaltzeko eta beraz, gai hau hurrengo topaketarako geldituko da. Bertan, akats hori eta beste batzuk baloratuko dira, horien eraginez desfileetara bai publiko eta bai partehartzaile bezala KA-ko jende gutxi joan baitzen.